

Interreg
POCTEFA
LINGUATEC



2021-06-18

[Es/Fr](#) - [Ara](#) - [Occ](#)

MUGAZ GAINDIKO KONGRESUA

Adimen artifiziala eta mugaz gaindiko lankidetzak: azpiegitura linguistiko, adimendun eta irisgarri baten bidean



Bigarren jardunaldia Donostian

LINGUATEC proiektuaren Mugaz Gaindiko Kongresuaren bigarren saioa Donostian izan da, Miramar jauregian, UPV/EHuren Udako Ikastaroen egoitzan. Jon Abril Olaetxeak (Elhuyarreko

koordinatzaile nagusia), Junkal Gutierrezek (UPV/EHUKo Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko errektoreordea) eta Garbiñe Mendizabalek (Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria) ireki dute batzarra, eta, aurreko egunean landutakoaren ildotik, mahai-inguru batekin abiatu da. "Hizkuntza-azpiegituren beharra mugaz gaindiko lankidetzaren areagotzeko" izenburua zuen mahai-inguruak, eta parte-hartzaileen artean bereziki aipatzekoa da CTP-POCTEFAko zuzendari Jean-Louis Valls egon dela, Mikel Antonekin (Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendaria), Pello Pellejerorekin (Nafarroako Gobernuako Europako Ekintzaren, Eskualdeekiko Lankidetzaren eta Kanpoko Herritarren Zerbitzua), José Ignacio López Susínekin (Aragoiko Gobernuako Hizkuntza Politikako zuzendari nagusia) eta Arola Urdangarínekin (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen zuzendaria) batera.



Mugaz gaindiko hizkuntza-azpiegitura baterako bikaintasun-sarea

Jardunaldiaren bigarren zatian, hizkuntzak garatzeko mugaz gaindiko ekimenak izan dira protagonista. Nabarmentzekoa da mugaz gaindiko hizkuntza-azpiegitura bat eraikitzeko adimen artifizialeko bikaintasun-sarearen sorrera-manifestua irakurri eta sinatu dutela partzuergoko kideek, Eneko Goia Donostiako alkateak lagunduta .

Sinaduraren ondotik, hizkuntzen arteko lankidetzaren teknologikoak berekin dituen aukerak eta erronkak izan dituzte mintzagai Europako ekimen hauetako ordezkariak: European Language Grid, European Language Equality, The Digital Language Diversity Project, Congrès permanent de la lenga occitana.

LINGUATECen garatutako aplikazio nagusien erakustaldi-tailer batekin bukatu da kongresua: Itzulpen automatikoa egiteko APPa, tresna-barra eta CMS plugina; ahots-sintesarako plataformak eta aplikazioak (okzitanierarako eta euskararako); APP eleaniztun eta irisgarriak, eta ahotsa ezagutzeko eta azpitolazio automatikorako aplikazioak.

Begiratu LINGUATECen garatutako baliabideak

"Eskerrik asko biltzar honetan, eta proiektuan, parte hartu duzuenoi. Horrelako tresnak lantzen jarraituko dugu, euskara, aragoiera eta okzitaniera arlo digitalean osasun ona izan dezaten. Zuen zain egongo gara hurrengo deialdietan".

Josu Aztiria, proiektuaren koordinatzailea



Laguntzailea



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES
WWW.UBK.EUS

EFA 227/16 LINGUATEC proiektua bigarren POCTEFA deialdian onartu zuten, eta 1.227.500 euroko aurrekontua du; Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) % 65a finantzatu du Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Programaren bitartez.

[Eguneratu harpidetza-datuak](#) edo [eten harpidetza](#).

